

uztarria

|||Azpeitiko herri aldizkaria |||2014ko otsaila |||158. zenbakia |||

NIREA DA
ERABAKIA

Abortua arautzeko PPren lege proiektuaren aurrean badute zer esana haurdunaldia eten zuen herritarrak eta emakume mugimenduak 20

azpeitiko
ikastola
ikasberri koop.e.

Matrikulazio epea:
Otsailaren 3tik 14ra

Informa zaitetz 943 15 12 46

ZATUZ
IKASTOLARA



zeurea,
geurea,
denona

www.azpeitikoikastola.net



2014ko neguko promozioa

Gozatu ezazu zure etxean Miele batek bakarrik eskaini dezakeenaz: exigentzia handienari erantzungo dioten emaitzak, fidagarritasun paregabea eta iraunkortasun bermatua.

Aurkitu perfekzioa **prezio erabat sinestezinean.**

Erabilera
anitzeko labea

629€

Garbigailua

799€

Bero-bomba
bidezko lehorgailua

999€

Ontzi-garbigailua

599€

Gipuzkoako Miele Banatzaile Ofiziala:

**MILAR
LARRAMENDI**

Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897

Made in
Germany

Miele
IMMER BESSER

*2014/01/07tik 2014/03/31ra (biak barne) gomendatutako prezioa.
RAEE kostua barne. Zergak barne. Beste eskaintzekin bateraezineko prezioa.

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarrria@uztarrria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 158.a (2014ko otsaila)
Urtea. XV.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
oalegria@uztarrria.com
Bazkietza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerok
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Uztarrria
Webgunea.
www.uztarrria.com

**Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak** (erakunde
publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Uztarrikiak Oharra. Uztarrria
Bai Euskarari Komunikazio
Taldeak ez du
bere gain hartzen
herri aldizkarian
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik



2014KO OTSAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



16

iritzia

Inkesta. Organikoa
birziklatzen al duzu
etxean? **13**

mamia

Felipe Murillo.
Musika, bizitza
ulertzeko ezinbesteko
osagaia **04**
Klik! Manolo eta Mikel
Sanjuan aita-seme
tailagileen hainbat lan,
argazkitan **16**


Uztaro kooperatiba.
Egungo kontsumo
ereduaren alternatiba,
kontsumo taldeak **24**

jakiteko

Bestaldetik.
Pilotalekutik kanpo
ere, badu zer kontatu
Ion Etxeberriak. **34**



24



04


Ba al dakizu eskualdeko albisteak biltzen
dituen urola kostako hitzak hamar urte
beteko dituela hila honen 20an? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrrian



943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarrriaren produktuak
ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak
orain arte **13 liburu, CD 1** eta **biografiak txikiak** atera
ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide
gara Uztarrria Komunikazio
Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira
urtean. 110.000 euroko
aurrekontua dugu 2014an.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpirtarte 'Kabra', Enrike Zurutza, Maria Jesus Arregi

FELIPE MURILLO

irakaslea eta musikaria

“koruak ez du garai bateko erakarpenik”

Ikasketaz psikologoa, lanbidez irakaslea, musikarik gabe, ordea, ez du ulertzen bizia. Indarra ematen dien bizitzako doinuez aritu da solasean. 📝📍 Ainitze Agirrezabala

Bizitzaren doina tristea litzateke oso musika gabe Felipe Murillorentzat. Saltseroetan saltseroena, karnaballetan, martxoaren 1ean, musika bandak eta Kbae koruak Sanagustinen (22:30)egingo duten *guatekean* hartuko du parte.

Alkategai aurkeztea bakarrik falta al zaio Felipe Murillori?

Kar, kar, kar. Hori koadrilakoren batek bota izan dit, noiz edo noiz. Felipe Murillori faltako litzaioke futboleko ibiltzea, adibidez, edo sartzen den saltsetan gehiago zentratzea, askotan denera ezin ailegatu ibiltzen da eta horrek frustratu egiten du.

2010eko saninazioetan, Marea Arroxa ekimenaren baitan, osatu zenuten elek-

tro txaranga. Geroztik, indar handia hartu duzue...

Bai, kalejira egiteko aitzakia hartan Eztake taldean elkarrekin ibiltako jendea elkartu eta hortik sortu zen elektro txaranga. Espero ez arren, formula hark arrakasta izan zuen eta, harrezkero, batean eta bestean jo izan dugu.

Julian Barrenetxea abesbatzan ere bazabiltza. Abesbatzara jende gaztea erakartzeara zaila omen da. Zer izan daiteke irtenbidea?

Pentsatu askotan egin dugu, baina formula magikorik ez dugu topatu. Hor gauden gazteoi asko gustatzen zaigu abestea; gehienak umetan hasi ginen, Antxietan lehenbizi eta Barrenetxean gero. Oro har, beteranoak asko eta

||| DATUAK |||||

||| **Jaio.** 1987ko ekainak 12.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Irakaslea eta musikaria.

gazteak gutxi gaude. Gakoa da adin beretsuko jendea elkartu eta giro ona izatea, baina kontua da koruak une honetan ez duela garai bateko erakargarritasunik.

Hainbat herritako abesbatzak ere zuzentzen dituzu.

Zestoan urte batzuk eman genituen umeen koruarekin, baina edadean aurrera egin ahala itzaltzen joan zen. Gaur egun, 3-6 urteko umei musika-tailerrak ematen dizkiet Arroa-Behean eta Zestoan. Getarian Elkano helduen abesbatza zuzentzen dut.

Gauetz parrandan musikari ibili eta hurrengo goizean

abesbatzarekin abestu beharra ez da ba xamurra izango?

Noski, hor parranda egiten ez dutenen koltxoi handia dugu. Egunekoak badu bere alizientea, kantatzearen aitzakian raba batzuk jan, umeen danborrada ikusi... Gustatzen zaizuna egiteak beste bizitza sozial bat ematen dizu.

Musikarako zaletasuna nondik datorkizu?

Aita Extremadurakoa da, flamenko zalea eta etxean kantatzea gustatu izan zaio. Aitarengandik jasotakoaz gain, lau urterako hasi nintzen musika eskolan eta nahi edo ez beti zoaz xurgatzen.

Pianoa eta biolina jotzen dituzu...

Jo biolina; pianoa lardaskatu. Biolina ganoraz jotzen gero oso goxoa



||| **MOTZEAN** |||||

GALTZEKO TXOKOA?

Argentina.

AMETS BAT?

Indibidualismoarekin bukatzea.

BIZIO BAT?

Astegun gauetako kañak.

OROITZAPEN BAT?

Edozein besarkada.

BELDURRAZERI?

Bakardadeari.

HASERRETU, ZERK?

Erlatibizatzen ez jakiteak.

DEFINITU ZAITEZ...

Entzuten eta ulertzen dakien desorganizatu bat.

ESTIMATZEN DUZUN BESTEREN BERTUTEA

Momentu bakoitza erlatibizatzen jakitea.

ZEUREKIKO EGITEN DUZUN GALDERA?

Zer ariko ote da bestea pentsatzen?*

da. Pianoarekin hasi nintzen koruan laguntzeko behar nuelako.

Sanjuandegiko Festa Bartzordeko kide ere bazara. Auzoa indartzeko auspo ona izan da batzordea.

Bai, hor asmatu genuen talde sendoa osatu eta geure artean giro ona izanda. Eta orain asmatu nahi da dinamika hori beste generazioetara transmititzen. Auzo-lokala lortu dugu eta erabilpen handia ematen ari zaio. Hori zen asmoa, kaletik aparte geratzen den auzoari bizia ematea. Orain ondo legoke arlo soziala ere lantzea. Ideiak ez zaizkigu falta. Sentsazioa dut gauza askotan nabilela eta ematen dudala aurpegia. Ni bezalako saltarinak ere beharko dira, baina funtzionatzen badute da atzean dena ematen duen talde sendo bat dagoelako.

Inoiz planteatu al duzu musikatik bizitzea?

Musikatik bizitzeko modua da, azkenean, klaseak ematea. Nik ematen ditut Zestean, Getarian... baina horrek ez du bizitzeko ematen. Instrumenturen bat ondo dominatuko banu eta haren ikasketak eduki klaseak emateko, baina horretarako aukerarik ez dut. Musikaren munduan nire ametsa litzateke orain arte bezala, aurrerantzean ere disfrutatzeke aukera izatea. Barrena husteko hain bide egokia eta librea da niretzat musika. Txikitan oso lotsatia nintzen eta garai hartan ere musikak hori eman zidan, askatzeko modu bat. Bakarrik egoteko gogoia dudanean pianoaren aurrean jarrita edo idazten husten dut barrua.

Ikasketaz psikologoa zara.

Psikologo lanean aritu nintzen, familia hezitzaile, Diputaziora iristen ziren kasuekin, bi urtez. Aurretik, praktikak Argentinan egin nituen, tratu txarrak jasaten zituzten emakumeei terapia bidez lagunduz. Egoera gogorak ikusi ditut, baina asko ikasi dut, batik bat beste errealitate sozial batzuk ulertzen. Zerbait txikia lortzen duzunean ikaragarritzko poza duzu, baina lortu arteko bide hori frustrantea da. Orain, berriz, Iraurgin nago irakasle, DBHko lehen mailan tutorea naiz, eta psikologia, musika, gizarte... irakasten ditut. Ederra ari da izaten esperientzia.

Musikak psikologo lanean laguntzen al du?

Musika emozioak bideratzeko, transmititzeko modu bat da. Eta, psikologia ere, azken batean, hori da, sentitzen duzuna transmititzeko gailuak ematea, nolabait. Eta transmititzen duzun horri beste ikuspegi bat emateko modua eskaintzea. Bi arloak oso lotuta daude eta musika erabilgarria da psikologian. Azkenean, sentimenduekin arrazionala izan beharrean, sentimenduekin jokatzaren duten bi disziplina dira.

Denerako denbora al duzu?

Bai, eta denbora librea hartzen dut. Gauean, ohera joaterako, kaña bat hartuz jendearekin egoteko beta hartzea gustatzen zait.*

Ainhoa Otermin
Biodantza Garapen Pertsonaleko Sistema

Azpeitian, ostegunero, 19:00etatik 21:00etara
aotermi2@gmail.com www.biodanzadonostia.com Tel.: 659 83 80 40

Aukera, akatsa, esperientzia

B

izitzak bigarren aukerak ematen dituela probestuz, zuzenbidea ikasten hasi nintzen duela bi urte eta erdi, burubelari, esango dut, zeren eta duela urte batzuk EHU n matrakulatu banintzen ere, klase eta azterketetara ez nintzen azaldu ere egin. Garai hartan, bizitzak eman didan aukerarik ederrenaz gozatzea lehenetsi nuen, ardurak alde batera utziz. Damutzen ez naizen aukera, damutzeak, ezer aldatuko ez lukeen arren.

Eta urte batzuk atzeraxeago joanda, selektibitatea egin ostean, zurrerik formakuntza mailan gehiegi eskaini ez zidan hautaketa bat egin nuen, baina bizitzaren beste zenbait arlotan, eta bereziki harremanen eta elkarbizitzaren esparruetan, egin nezakeen onena. Gasteizera, Jarduera Fisiko eta Kirol Lizenziatura egitera, joan nintzen.

28 urterekin, hori behar den perspektibaz balora dezakedala argi daukat, baina 18 urteko ikasle batek hautaketa egiten duenean, ikus al dezake horrelakorik? Ni behintzat ez nintzen gauza. Medikuntza eta Zuzenbidea nire aukeretan zeuden arren, ez nintzen gauza bietako inork eskaini ziezadakeena aurreikusteko. Kirola gustukoago nuen, eta gainera, errazagoa zen, eta Gasteizen.

Hala eta guztiz, etxetik kanpo bizitzeak, akademikoki (neuretzat) baliorik ez duen arren, derrigorra behar luke edozein ikaslerentzat. Jakina, ekonomiaren menpekotasunak aukera hori itxita uzten die hainbat eta hainbati, nere ustez, benetako injustizia dena. Aukeraketa egiteko garaian, batzuek lanbide heziketa hautatzen dute, beste batzuk unibertsitatea, eta beste batzuk lanera zuzenean hastea. Baina niretzat, inor ez da gai, adin horretarako heldutasun ulertezin bat ez badu, edo benetako barne grina, aukeraketa horrek suposatzen dizkion ondorioak ulertzeko, goizegi da norbere bizitzaren nondik norakoak, etorkizuna, marrazten hasteko.

Askotan pentsatu izan dut bikoteak ere antzerako egoeran egoten direla hainbatetan,




||||||| **hodei mendinueta** |||||

||| Nire kasuan, argi dut, egoerak aldatzeko inoiz ez dela berandu, edo behintzat aldatzen saiatzeko

hau da, behin hautatu eta dagoenari eutsiz, bestetarako aukerarik egongo ez delakoan edo, jarraitu, iraun, mantendu. Ikasketak amaitu eta lana lortu duenak ere, nahiz benetan bera asebetetzen ez duen egoera batean aurkitu, jarraitu egingo du, bizitzeko baliabideak hortik lortzen baititu, aldatzea oso zaila baita. Dena hasierako hautura laburbildu daiteke, eta hautu horrek eskatzen dituen hausnarketak eta balorazioak behar bezala egiteko gaitasuna eta kontzientzia esperientziak ematen du. Honela, bidean zehar topa daitezkeen arazoan aurrean jarraitu edo merezi ez duen egoera batekin moztea, zer komendun, balora daiteke. 18 urterekin, zaila.

Esperientziaren balorea

Nire kasuan, argi dut, egoerak aldatzeko inoiz ez dela berandu, edo behintzat aldatzen saiatzeko. Era berean zortea dudala bigarren aukera baldintza egokietan garatzeko, eta hori guztiei ez zaiela gertatzen, bizitzaren gorabeherak direla medio. Baina bereziki, argi dut bizitako esperientziak behar den ikuspuntutik baloratzeak, geure egoerarekin kritikoak izateak eta akatsetatik ikasteak irakasten duela norbera zein den eta zer nahi duen, hanka saritzeko aukerak gutxituz.*





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00** etara

Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Institutioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga...** Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutua, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Mundu morea

Mundu morea, pertsona moreek osatzen dutena da. Horiek oparitzen dituzten esaldiak, kolore horretakoak dira. Morea betidanik mahatsarekin, ardoarekin, alkoholarekin eta bere eraginarekin lotu izan dut, horregatik, alkoholaren eraginean egoten diren pertsonak dira. San Sebastianak oraintxe pasatu direla kontuan izanda, idazteko gai egokia iruditu zait.

Interneten kolore morearen esanahia aurkitu dut, eta alkoholak guregan eragiten duen egoerarekin bat datorrela ohartu naiz.

Kolore honek, gure buruarengan izugarriko eragina du, beldurra kentzen duen kolorea da. Inoiz ezer esatera ausartu garen pertsonarengana hurbiltzen gara, inoiz ausartu ez garen gauzak esatera, esaldi moreak oparitzera, askotan zentzurik gabeak. Pertsona more bat mundu horiari buruz hitz egitera etorri zitzaidan orain dela urtebete, gutxi gorabehera. Aspalditik, pare bat hitz egin nahi zizkidan eta ez omen zen ausartzen. "Aurkitu al duzu zure pertsona horia?", galdetu zidan. Pertsona more honek, mundu horiari buruzko ezer ez zuen ulertu baina niregana gerturaztea lortu zuen!

Psikiatreek beraien gaixoak lasaitzeko erabiltzen duten kolorea dela diote. Zenbait pertsona more, gehiegi. Ibiltzeko eta hitz egiteko era eta dena aldatzen zaigu. Zuhatz tabernara, denok txintxo-txintxo ilara batean sartzen ari ginela, zerbait eskatu nahi zidan neska gazte batekin egin nuen topo: "La ordue?", galdetzen zidan. Keinuen bidez jakin nuen ordua galdetzen ari zitzaidala.

Pertsona moreek imajinazioz beteriko esaldiak oparitzen dituzte. Fideon, neu testigu, nire lagun batez-txora txora eginda zegoen mutil batek, honakoa oparitu zion: "Nahi alde dek Loiolabideko etxietan nerekin hipoteka bat pagatzie?". Berarekin egon nahi zuela esateko era kuriozosa benetan! Egia izango da kolore moreak imajinazioa gartzten duela.



|||||||nagore illarramendi|||

|||San Sebastianen ondoren promesa bat egin diot neure buruari, parrandan gai tristeez ez dut hitz egingo

Moreak erraz hunkitzen dira, zenbat aldiz ikusi ditugu besarkadak eta malkoak parrandan? Zenbat aldiz bazter batean bi lagun, elkarrekin, pasatu diren gauza txarrak malkotan gogoratzen? Nik ere San Sebastianen ondoren promesa bat egin diot neure buruari, parrandan gai tristeez ez dudala gehiago hitz egingo. Mesedez parrandan, gai tristerik ez! Parrandan malkorik ez!

Nire lagun Patxik orain dela urte pila irakatsi zidan bertsoak dioen bezela:

Neurria da kontua

Alkola dala ta ura dala sortu da hainbat endredo egunkari ta telebistatan ia dugu egunero baina badakit sarri askotan jartzen gaituela bero baina alkola ez da hain txarra Neurrian edan ezkeru.✘




ONDOR PASATU



2014

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Merkataritza zerbitzua

Herriko merkatariek eta ostalariek zerbitzua euskaraz eman dezaten, materiala euskaraz eta doan eskaintzen dute Azpeitiko Euskara Patronatuak eta UEMAK.  Ainitze Agirrezabala

Herriko merkatariek eta ostalariek euren zerbitzua euskaraz eman dezaten, Azpeitiko udala, Azpeitiko Euskara Patronatua eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) elkarlanean ari dira. Urtea hastearrekin bat, herriko saltoki eta ostalari guztiei 2014ko egutegia eta gutun bana bidali zaie.

Merkatariek eta ostalariek zerbitzua ematerako garaian ahalik eta erraztasun gehiena izan dezaten, Euskara Patronatuak eta UEMAK urtean zeharreko zerbitzua eskainiko die. Bidalitako gutunean, eskaintzen den materialaren berri ematen da: besteak

beste, faktura takoak, karteltxoak euskaratzeko aukera, hiztegitxoak, oharrak, merkealdietarako materiala... Guztia euskaraz eta doan.

Edozer behar izatekotan, Euskara Patronatuarekin -943814518 zenbakira deituta edo *euskarapatronatua@erabili.com* helbide elektronikora idatzita- edo UEMArekin -946279195/*udalerriak@uema-org*- jarri behar da harremanetan. Horrez gain, www.uema.org webgunean, 'herritarrentzako zerbitzua' atalaren barruan, merkataritza zerbitzuaren inguruko informazioa dago eskuragarri. ✘



Unai Iparragirre 'Txipa'.

ESANA DAGO

III "Iaz baino gehiago egin eta lasterketa bat behintzat irabazi nahiko nuke aurten"

III "Lasterketa laueta niretzat jokatu dute taldekideek"

UNAI IPARRAGIRRE
Txirrindularia

III "Garrantzitsuena da bertsoa aitzakia hartuta, jende aurreko jardunari edo taularatzeari beldurra eta lotsa galtzen hastea"

III "Gero eta emakume gehiago dago eta oso maila ona ematen dute"

NEKANE ZINKUNEGI
bertsolaria

AIZPURU AUTOAK

Landeta auzoa - Telf. 943 81 23 59

Faxa: 943 81 22 81 20730 Azpeitia

aizpuru@aizpuru.net

urke ondo
pasa
inauteriak

Argazki eta bideo erreportajeak Salbe auzunea, 35 Tel. 943 15 12 87 Azpeitia

Periye

Ikusi besterik ez dago. Kalekume peto-petoa naiz, kaxerotik ezer gutxi daukat. Baina hori axaleko kontua da. Zu eta ni, biok, eta Uztarri berean lotuta gauden denok baserrikumeak gara, gure zainetan ikuilu giroko odola daramagu ('eau de ximur'). Inongo lotsarik gabe aldarrikatzen dut nire jatorria. Geure burua kalekumetzat daukagun ia denon gurasoak baserritik jaitiak dira, eta gurasoak ez badira, aiton-amonak seguru. Orwellen eboluzioan kaxeroak agropijo bihurtu gara.

Kontua da, denok hain gertuko eta etxeko genuen baserria, gure ondorengoek oso urrunekoa izango dutela. Beraientzat baserriko kontuak, Olentzeroren kontuen pareko izango dira. Lotsarik ez daukat, barkamenik ere ez baina etxe askotan gertatuko da: alaba zaharrena bederatzi urte egitear dago eta ikusi dituen behiak liburuetan eta telebistan bakarrik ikusi ditu (edo bide bazterren batean kotxean doala). Lehen andrearekin galtzen ziren puntuak, orain seme-alabekin galtzen ditugu (izan kupida).



txetxu urbieta

Hori guztia urtarrileko periye eragindako burutazioa da. Txapelak bai, matraila gorriak ere bai, eta batez besteko adina mezetakoaren parekoa, 70 urteren bueltan, eta lau hankakorik ez, erabat peri begetarianoa. Hilero hirugarren asteazkenetako baserriarren festa azkenetan da eta periaren azkenarekin batera, gure zatitxo bat ere itzaliko da. Horiek ere aldatu dira (praka zuriak Lapatxen erre zituzten) baina zori-enez, akerren herria beti ondoan izango dugu.*

PUBLIERREPORTAJEA

“Produktu freskoekin, egunean bertan eskuz egindako masa harrizko Labean egiten dugu, benetako italiar zaporea bermatuz”

“La PrimaVera”. Esanahi berezirik ba al du?

Italieraz honako esanahia du: lehenengo benetako pizzeria. Horregatik, produktu freskoekin lan egiteaz gain, egunean bertan eskuz egindako masa harrizko labean egiten da, benetako italiar zaporea bermatzeko.

Non zaudete eta zer da eskaintzen duzuen?

Pizzeria berria Pablo VI.a auzoan dago, 19. zenbakian. Ez ditugu pizzak bakarrik egiten; horiez gain hamburgesak, ogitartekoak eta krepe gozoak ere egiten ditugu.

Egunero, 12:30etik 14:30era eta 19:00etatik 23:00etara bezeroen zerbitzura zabalik dugu pizzeria, astelehen eguerdian izan ezik. Eskerak **943 083 460** telefono zenbakira deituta ere

egin daitezke. Azpeitia eta Azkoitia banaketa zerbitzua ere badaukagu. Duela gutxi, gainera, www.laprimaverapizzeria.com webgunea jarri dugu martxan.

Nortzuk osatzen duzue lan taldea?

Sustatzaileak 2007an jarri zuen proiektua abian Zumaian, eta sei urteotako lan gogorraren ondoren, Azpeitira zabaldu du. Garai zail hauetan, langileok asko eskertzen diogu negozioaren jabeari proiektu hau martxan jartzekoan gurekin kontaktu izana. Elkar ezagutuz lan-talde polita osatu eta lan-giro ederra dugu.

Pizza egilea italiarra izanik, nola bururatu zitzaion Euskal Herriaren pizzak egiten hastea?

15 urtez Italiako pizzeriarik onenetan aritua da lanean. Joan den



'La PrimaVera' pizzeriako lan-taldea. La PrimaVera

udan, Euskal Herria ezagutzera etorri zen. Hemengo lekuek eta jendeak txunditu egin zuten. Azpeitiko San Inazioak eta Azkoitiko Andramariak ere ezagutu zituen, eta inguru hau paregabea iruditu zitzaion “La PrimaVera”-

rekin italiar pizen kultura bertartzeko.

Beste esatekorik bai?

Hilabete daramagu lanean Azpeitian eta azpeitiarrei nahiz azkoitiarrei eskerrak eman nahi dizkiegu eskuzabalik hartu gaituztelako.*



www.laprimaverapizzeria.com



URTARRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



aitor gorrotxategi



Garai berrietara egokituta

UROLATURISMO.NET. Beti esaten diot neure buruari gure herriak eta bailarak, orokorrean, potentzial turistiko handia dutela. Gaur egun, teknologia berriek indar handia dute gure artean, horrelako atariek: deskonturola, urolaturismo eta beste hainbatek gure herrietako turismoa eta merkataritza sustatzen lagundu dezaketela iruditzen zait. Positibotzat jotzen ditut orrialde guzti horiek.



Ekintzailetasuna sustatu

IDEIAK. Modan dago ekintzaille hitza eta egia da gure ekonomiak aurrerakada izateko beharrezkoak direla ekintzailleak. Hitz magiko horren batuta norberak izaten du normalean eta horrelako ekimenak behar ditugu, ideia mordo bat eta ea bakarren batzuk aurrera ateratzen diren horretarako behar diren baliabideak gauzatzu.



Udalak eskualdean 20 lanpostu sortuko ditu

AHALEGINA. Langabezia zertxobait jaitsi da gure herrian eta bailaran azken hiru hilekoan; hala ere, Gipuzkoako batz bestekotik gora gaude oraindik eta ahalegin handiak egin behar ditugu hori horrela izan ez dadin eta langabezia tasa txikitu dadin. Instituzioen lana ezinbeste-

koa da bultzada emateko eta komunikazio interinstituzionala zer esanik ez bikoizketarik eta gaizki ulerturik egon ez dadin. Ea sektore pribatua hain ahul dagoen momentu hauetan sektore publikoak motorra martxan izaten duen.*

INKESTA

organikoa birziklatzen al duzu etxean?

A. Agirrezabala/A. Odria

IÑIGO LETAMENDIA

51 urte



“Bai, ekimena martxan jarri zenetik bereizten dugu organikoa etxean. Aldaketa handiegirik ez digu eragin, kontzientziatuz gero ez da asko kostatzen. Egin beharreko zerbait dela iruditzen zait eta etxean denok egiten dugu”.

DONATO UNANUE

70 urte



“Pare bat urte dira birziklatzen hasi ginela. Ez du lan handirik ematen, eta egin beharra dago. Etxetik hasi behar dugu ohiturak aldatu eta gauzak behar bezala egiten. Halere, Donostian bizi naiz eta han ez dugu edukiontzi marroirik eta, beraz, organikoa ontzi grisera botatzen dugu”.

J. M. ALDABALDETREKU

61 urte



“Ahal dena egiten dugu, baina oraindik ez dugu %100ean birziklatzen. Badakit organikoa birziklatzeko ikastaroak-eta antolatu dituztela eta ea aurten sailkatzen hasten garen”.*

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

Hitz egin dezagun politikaz



amaia agirretxe

Oraindik harritu egiten naiz batek besteari interes politikoz aritzea leporatzen dionean, hura eta bestea politikarien ardura eta errua direla entzutean, norbaitek apolitikoa dela baieztatzen duenean, apolitikoa izatea Realekoa izatea balitz bezala.

Alderdietako politikoei herriarekin hauteskunde garaian soilik gogoratzea leporatzen diegu, eta badirudi horretara murriztu dugula geure ardura politikoa. Alderdiek interes politikokoak dituzte eta herri interes ezberdinak ordezkatzeko dituztelakoan bozkatzeko erakunde ezberdinetan politika egiteko normalean alderdiek osatutako zerrendak. Baina alderdiak ez dira subjektu politiko bakarrik.

Badirudi bizitzako beste hainbat arlotan bezala, politikan ere txotxongilo bilakatu nahi gaituztela, artzain bati jarraitzen ikasitako artalde, baina politika instituzionala burutzeko herritarron

ordezkari batzuk aukeratzeak ez du gure izatea aldatzen eta mugatzen. Ahaztu egin zaigu subjektu politikoak garena, politika elitizatzea onartu dugu, gu geu egunero politika egiten ari garela konturatu gabe.

Baina erabaki politikoa da erosketak saltoki handietan edo herrian burutzea, egunkari bat edo bestea erostea, garraio publikoa erabiltzea, seme-alabak zein ikastetxetan matrikulatu erabakitzea... Gure bizitzan zein politikan, subjektu aktibok gara eta honenbestez bozarekin delegatu ezin den erantzunkizuna dugu, gu gara sistema hau legitimatzen eta sarri birproduzitzen ari garenak, eta guran dago sistema hau errotik aldatzeko giltza ere.

Atzodanik hasi ginen biharra eraikitzen eta gaur dagoeneko ezin dugu atzokoan esku hartu, baina biharrera bidean eta gaurkoaren nolakotasunean, gurrak izango du azken erabakia.*

galdetzen hasita, zertarako daude komunak perez Arrequin, jendeak pixa kale kantoian egiten badu? Uztarria

Plazerra Azpeitian



miren alcedo

Txikitan ez nuen amarekin intimitateaz hitz egiten, askoz gutxiago sexualitateaz, lotsagarria zen eta. Lagunek ere, ez zekiten. Lau neba-ahizpa izanda, jakitun omen zen Inesek esan zigun umeak zilborretik jaiotzen zirela. Garai ilun hartan sexua, matrimonioa, amatasuna... nahastuta zeuden eta plazerrak ez zuen lekurik. Lehen informazioa apaiz hippy batek eman zigun, baina horretarako lehena go *El arte de amar* irakurri behar izan genuen. Apaizak zioen amodiorik gabeko sexua kaltegarria zela.

Handitu ginen, sexualitate mota bakarra ez zegoela ikusi genuen eta gizarteak bultzatutako aldaketa soziala islatzen zen osasun sisteman. Borroka ondoren lortu zen amatasuna eta sexualitatea ezberdintzea.

Orain berriro, askatasunari beldurra erakutsiz, Estatu espainolaren legeriak gure intimitatea arautu nahi du. Ahalegin horretan emakumeon gorputza

kontrolatzeko lehen urratsa izan da. Gainera, eta hau kontu zaharra da, gure onurarako egiten dutela esaten dute; zer komeni zaigun ez dakigulako, ume bihurtu nahi gaituzte.

Administrazio batek hori proposatzen duen bitartean, beste batek hezkuntza libreagoa, askatasunean, zabaldu nahi du. Azpeitiko Udaleko Parekidetasun saila bultzatzen ari da sexualitatearen inguruko Plax! programa. Ikastetxeetan hasita, geroago gazte txokotan eta orain hilabeteroko azken larunbatetan Sindikatu Zaharrean sexualitateaz hitz egiteko edo aholkuak jasotzeko parada daukagu heldu guztiok, bai emakumezkoek, bai gizonezkoek, banaka, binaka edo taldeka. Gainera, emakumeen txokotan ikastaroak eta hitzaldiak badaude.

Beste leku batzuetan agian ez, baina Azpeitira plazerrari buruz hitz egiteko aukera iritsi da. Bazen garaia!*

HAN HAN HAN... ALLEAU DEK BAZKAIYE.
"YA" ESANDAKUEN HIK HANKATATIK
HELDU TA NIK LEPUE TXIKIUKO ZOAT!



Mundua

Hemen ere gauzak ez daude ondo. Egon ziren hobeto, jendeak pentsatu zuen aberats zela, baina garai hura joan zen, eta ez du ematen laster batean etorriko denik. Hemen ere krisia dago, gurean baino lehena-gotik, eta ahal duena egiten ari da jendea, bizirauteko.

Hitz egiten duzu batarekin eta bestearekin eta etsipena nabari diezu hitzetan. Etsita daude, egoerak ez duelako hobera egingo. Etsita daude, agintean dauden politikariek ez dutelako sinesten, ez baitute ezer egiten, baina ez dute sinesten agintea hartu nahi du-

tenekin ere. Eta hala ere, jendeak irribarre egiten du, eta bere buruari barre egiten dio, eta elkarri esaten diote lehen ere izan zirela krisiak, eta etorriko diren krisiak oraindik handiagoak izango direla, hau ez dela ezer, bihar ere zerbait izango dela.

Aurrekoan, Maiatzaren 1aren plazan bazkaldu nuen. Bi ogi kozkor sobratu zitzaizkidan. Usoei eman nien lehena, puskaka. Lehenengo puska bat, gero beste bat. Uso morderoa gerturatu zen. Guztiek zeukaten beren puska. Bigarren ogi kozkorra osorik bota nien, zer egiten ote zuten ikusteko. Uso



ñaut frantzesena

bakoitzak bere mokoarekin hartzen zuena jaten zuen eta berriro mokoka egiten saiatzen zen. Egoera zalapartatsua zen, eta nik pentsatzen nuen beren artean borrokan-edo hasiko zirela, baina ez, guztientzat zegoela ematen zuen. Halako batean, usoak konturatu zera, loro berde bat etorri zen auskalo nondik, eta ogi kozkorra osorik hartu eta han ezkutatu zen arbola batean, usoak ezer gabe utziz.

Harritura geratu ziren usoak, elkarri begira, zer egin ez zekitela. Gero, janaria topatzen jarraitu zuten.✘

Ken Zazpi & Orkestra Sinfonikoa

Hilabete honetan, Durangoko azokan erositako diskoetako batekin nator, Ken Zazpi eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren diskoarekin, hain zuzen ere.

Diskoa Elkar diskoetxeak plazaratu du eta 2013ko abenduan aurkeztu zuten Donibane Loitzuneko Jai Alai antzokian.

Lan hau hamaika abestiz osatua dago. Hamaika horietatik, betikio zortzi abestiez gain –*Ilargia, Gernika...*– hiru berri ere aurkituko ditugu, *Gereziondoa* adibidez.

Proiektu honen zuzendaria Fernando Velazquez konpositore getxotarra izan da. Moldaketak egiteaz aparte, zuzeneko kontzertuen zuzendaria ere Velazquez bera izan da.

Beraiek diotenez, lan zaila izan da. Bai Ken Zazpiko musikariek, bai orkestra sinfonikokoek be-

KRITIKA Ken Zazpi & Orkestra sinfonikoa



Disketxea. Elkar.
Argitalpen urtea. 2013.

Abesti kopurua. 11.

Salneurria. 18 euro.

Datua. Fernando Velazquez konpositorea *Lo imposible, El orfanato...* filmetako soinu banden egilea da.

raien nortasunaren zerbait utzi behar izan dute talde lanaren emaitza hobea izateko. Velazquez hitzetan: “Denok galdu dugu indibidualki, osotasunean irabazteko”.

Hala ere, bi urteetako lan gogorraren ondoren merezitako fruitua jaso dutela esan dezaket.

Bidaia honetan, bi mundu oso desberdinak bat eginik aurkituko ditugu, musika klasikoarena eta pop-rockarena.

Bien nahasketa horien emaitza definitzeko bi hitz besterik ez ditut: profesionaltasuna eta dotorezia.

Esan beharra dut ez naizela oso Ken Zazpi zalea, hala ere, disko berria entzuten dudan bakoitzean oilo ipurdia jartzen zait. Haizeak, sokak, perkusio desberdinak... abestiei izugarriko

ane bastida

indarra ematen diete eta agian lehen atentzioa ematen ez zidaten abestiak asko aberastu dituzte.

Nire abesti gustokoena *Gernika* dela esango nuke. Lehendik ere abestiak transmititzen zizkidan sentipen eta irudiengatik gustuko nuen arren, orkestraren gehiturak sentipenak areagotzen ditu. Tartean dauden soken doinuek, tinbalek... abestiari tentsioa ematen diote, gerora bat batean sirena doinuak ere entzun daitezke, abestia behin eta berriz entzunez detalle txiki pila antzeman daitezke. Guzti honi esker, begiak itxiz gero, Gernikako bonbardaketaren momentura garraiatu gaitzete.

Egia esan, disko honengatik ezin dut ezer ere txarrik esan, osotasunean bikaina da.✘



www.deskonturola.com
Bailanako eskaintzanik enakangannienak guztion eskura
 LEGAZPI / ZUMARRAGA / URRETXU / AZKOITIA / AZPEITIA / ZESTOA / ZUMAIA

AZKOITIA
 ERLOJU KONPONKETAK
 Arana, 5
 AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Egurraren maisuak

Manolo Sanjuan tailagilea ohorezko bazkide izendatu du Kultur Mahaiak, egindako lana aitortuz. Uztarriak bilduma osatu du haren hainbat lanekin. 📌📷 A. Agirrezabala



▲ AQUARIUMEKO ATEA.

Instituto ozeanarioaren 100. urteurrenean, 2008an, inauguratu zuten Mikel Sanjuanez tailututako atea. Ozeanarioaren armaria eta baleontziak ageri dira.

▶ ERRENAZIMENTUKOA.

Donostiako Askatasunaren etorbideko etxe bat zaharberitzean (1992), aita-semeek tailutu zuten egurrean Errenazimentu garaiko atea; gero, bronzera pasatu zuten.



► TAILERREAN.

Manolo eta Mikel Sanjuan aita-semeak Pablo VI.ean duten tailerrean. Hamasei urte zituenean heldu zion tailuari Manolok eta, orduz gero, gubiari lotuta eman du bizimodua. 1993an hartu zuen erretiroa, baina tailuari orain bizpahiru urte utzi zion erabat. Aitaren lekukoa semeak hartu zuen. Astigarragako Petritegi sagardotegirako bukatzen ari den aitonaren figura sinbolikoa.






▲ **ESKAILERA ERRENAGENTISTA.**

Argazkian ageri den etxebizitza partikular horretarako eskailera errenagentista "oso berezia" zizelkatu zuten egurrean aita-emeek, "detalle guztiekin".


▶ **'AZPEITIKO KIROLARIA' SARIAK.**

Azpeitiko Udalak urteko kirolari onenei sariak ematen dizkie eta iazko urteko sari nagusia, Azpeitiko kirolari onenarena, Oihana Goenaga igerilariak jaso du. 'Azpeitiko kirolaria' sarietan Udalak banatzen dituen oroigarriak Mikel Sanjuanek tailotuak dira.



▲ **OROIGARRIAK**

Azpeitiko musika bandan egindako lana eta bandako kide bati erliebean egindako oroigarriak.





skertuz
garrria.



► KIOSKOA ETA PIBOTEA.

Zarauzko Musika Plazako kioskoaren ornamentazioaz eta herriko hainbat pibotetako armarría diseinatzeaz ere arduratu zen Manolo.

▼ KONTSOLA ETA ISPILUA.

Ispiluaren markoa 'rococo' estilokoa da; kantsola, berriz, 'Luis XV' izenez da ezaguna. Manolo Sanjuanen lana da argazkikoa. 1985-1990 urteen bueltan egindakoa, hain zuzen.

▼ KARMELO ETXEGARAI.

Lehenbizi, Karmelo Etxegarai idazlearen bustoa zimenduzkoa zen, baina 1992an, Mikel Sanjuanek buztinean eredu berri bat egin eta brontzera pasatu zuten.



Erabakimena jomugan

Abortua arautzeko PPrene lege proiektuak ez du inor epel utzi. Haurdunaldia eten zuen herritarra eta emakume mugimendua, horren lekuko. 📝🗨️ A. Agirrezabala

Abortatzeko eskubidea arautzeko Espainiako Gobernua prestatzen ari den lege berriak zalaparta eta kritika gogorak ekarri ditu. Lege proiektu murriztaile hori abiapuntutzat hartuta, Uztarriak Azpeitira ekarri du gaia eta haurdunaldia-eten duen herritar baten testigantza anonimotasunetik jaso du. Horrez gain, emakumearen gorputzaren subiranotasunaren alde borrokan diharduten Bilgune Feministako kide Miren Odriozola eta Leire Ibargurenekin ere hitz egin du Uztarriak.

EMAKUME BATEN LEKUKOTZA

|||Adina. 25 urte. |||Haurdunaldia eten zuen. Duela bi urte, 23 urterekin.

“Ez genuen ezkutuan eraman”

“Lau-sei asteko nengoela jakin nuen haurdun nengoela. Sintomak sentitzen hasi nintzen, ondoeza, goragaleak... Pentsatu nuen elikadura arazoren bat izango zela, arraro sumatzen nuen gorputza. Amarekin haurdunaldi-testa egin nuen, eta positibo eman zidan. Ba-

‘gure
gorputza, gure
erabakia’
elkarretaratzea
gingo da martxoaren
8an, 19:00etan,
anbulatorio
aurrean

daezpada ere bigarren proba bat egin nuen, eta hark ere positibo eman zidan. Sinestu ezinik nengoen eta, orduan, Lagun Aro aseguru-etxearen bidez ginekologoarengana joan nintzen. Hark baieztatu zidan haurdun nengoela; ez dakit, lau edo sei asteko nengoen.

Hasieran asimilatu ezinik geratu nintzen. Inoiz ez nuen pentsatuko, baina hasiera batean haurdunaldiarekin aurrera egitea nahi nuen. Ordura arte garbi nuen haurdun gera-

tuko banintz eten egingo nuela, baina benetan geratu nintzenez, ez dakit nire barruko amatasuna piztu zen-edo, baina aurrera egiteko fasea izan nuen. Ez genuen ezkutuan eraman, eta nahiko naturaltasunez bizi izan genuen guztia. Bikotekidearen eta nire familiaren aldetik asko hitz egin genuen. Baiezkoan nengoen arren, bi aste horri bueltaka igaro genituen. Batekin eta bestearekin esperimentziak eta iritziak jasotzen nenbilela, inguruko batek galdetu zidan ea benetan umea eduki nahi al nuen. Haurdun nengoela jakin nuenetik lehenengo aldiz benetan orduan egin nion galdera hura neure buruari. Hasieran nahiko itsututa nengoen, eta galdera hura neurekiko egitean hasi nintzen pentsatzen zein puntutan nengoen. Askotan esaten digute ez dugula egonkortasun ekonomikoa, baina konturatu nintzen horren gainetik dagoela egonkortasun emozionala. Neure buruari begiratu eta zer puntutan nengoen ikusi nuen, eta benetan umea nahi al nuen neurekiko galdetzean, jabetu nintzen ez zela hura nahi nuen. Argi ikusi nuen ez zela une hartan egin behar nuen.



Horretaz jabetu nintzenean argi nuen ezezkoa zela erantzuna. Lasaitasun handia sentitu nuen erabakia hartzean. Gogorragoak izan ziren aurreko bi asteak. Beldurra ere banuen, etorkizunean ondorio psikologikorik eragingo ote zidan... Ez zen izan erabaki prezipitatu. Ez ginene ezkutuan ibili, eta hori mesedegarria izan zitzaigun gauzak hobeto pentsatzeko.

Hala, haurnaldia etetea nahi nuela esan nuen Lagun Aron, eta orduan Osakidetza bideratu ninduten, herriko anbulatorioko emaginarengana; eta handik Donostiako ginekologo batengana. Guztia doan izan zen. Ez dut gogoan zer informazio edo aukera eman zidaten abortatzeko. Uste dut aukerarik ez zidatela eman, bide bakarra zegoela esan zidaten. Gainera, haurdunaldia eteteko epea amaitzeaz genuen.

“Delitu bilakatu nahi dute”

Abortatzeko eskubidea arautzeko Espainiako Gobernuak aurkeztutako lege proiektuak pertsonalki asko eragiten dit. Horretatik pasatu naiz, eta orduan aukera nuen aurrera edo ez egiteko. Erabakitzeko aukera izan nuen, eta erabaki egin nuen zer nahi nuen eta zer ez. Orduan, erabaki horren gaineko eskubidea kentzea izugarritzkoa iruditzen zait.

Abortuaren inguruan ez da naturaltasunez hitz egiten, eta ikusten dugu inguruan bada-goela abortatu duen jendea, baina norberari tokatu arte ez zenekiena. Izugarritzko tabua dago gaiaren inguruan, eta halako legeek ez dute konpontzen laguntzen. Naturaltasuna kendu eta delitu bihurtzen dute.

Pertsona bat derrigortasunera bultzatzea oso larria da. Derrigortzeak ondorio larriak eragin ditzake emakumearengan, psikologikoki, batez ere. Ekonomikoki aurrera irtengo du, baina norbera emozionalki horretarako prest ez badago, ondorioak izan ditzake pertsonak. Zorionez, ia beti dago familiaren laguntza, baina ez da inondik inora bidezkoa. Atzerapauso hutsa izango da legea.

Gaiaren eta abortuaren inguruan informazioa ematea beharrezkoa da. Era berean, aberasgarria da horretatik pasatu den norbaiten hitzak entzutea; behintzat erabakia hartzerako garaian tresna guztiak eskura izan ditzala, baina abortatzeko aukerarekin, noski. Hor dago funtsa; nik ez dut inolako ondoriorik izan, eta ez naiz geratu duela bi urteko bizipenetan trabatuta, benetan nahi nuena aukeratu nuelako. Ondorio psikologikoak bi aldetara jasan daitezke, eta hori ez da arrazoa abortuari ezetz esateko. ▶

► Haurdunaldia eteteko momentua bera latza izan zen. Hamar minutuz asko sufritu nuen. Beldurra ere banuen, gero nola sentituko nintzen. Baina aske sentituz irten nintzen, eta ez dut arrastatu orduko ezer, argi nuelako zer egin nahi nuen.

Haurdunaldia aukera bat bezala ulertu behar dugu, eta ezin da lotu emakumea amaren figurara”.

Urte askotako borroka

Abortatzeko eskubidea arautzeko PPren Gobernuak aurkeztutako lege proiektua “inboluzionista eta atzerapauso izugarria” dela adierazi dute borroka feministan diharduten Miren Odriozolak (Azpeitia, 1944) eta Leire Iburguren (Azpeitia, 1979). Abortuaren inguruko legeak izan duen bilakaera “aipatze-koa” dela diote. 1970eko hamarkadaren erdi aldera, Odriozola Bilbon bizi zen, han ari baitzen ikasten eta lanean eta, garai haietan, antisorgailuak despenalizatzearen eta abortua legeztatzearen aldeko borroka bete-betean zegoela dio. “Garai hartan antisorgailuak ez zituzten ematen, debekatuta zeuden eta abortua baldintza guztietan kartzelarekin zigortuta zegoen. Bere garairako aurreratua zen Bilboko andre batek esan zidan halako ginekologorengana joan eta esaten banion ikaslea nintzela eta artean ezkontzerik ez genuela pentsatzen, antikonzeptiboak lortuko nituela. Eta halaxe eman zizkidan. 1977an, antisorgailuen legeztatpenerako aldarrikapen kanpainarekin hasi ginen eta ekimen asko antolatatu genuen: elkarretaratzeak, manifestazioak...”.

Urte hartan bertan, Euskal Herriko lehenengo topaketa feministak egin zituzten Leioako unibertsitatean, eta Odriozolak parte hartu zuen. “Ekimen esanguratsua izan zen oso, 3.000 emakume inguru bildu ginen eta han landutako gairik garrantzitsuenak abortua, sexualitatea eta planifikazio familiarra izan ziren. Urte haietan, mugimendu feministak indar handia hartu zuen eta borroka asko egin zen”. 1979-1982 urteetan, esate-

||| “PPren lege proiektua kontraesanez betetako diskurtsoa da, 1985eko legea baino atzerakoiagoa”

MIREN ODRIOZOLA

Bilgune Feministako kidea



Miren Odriozola eta Leire Iburguren, eta goian, eskubitara, abortatzeko eskubidearen alde Euskal Herri mailan erabiltzen ari diren logoarekin.

rako, abortuak egiteaz salatuak izan ziren Basuriko 11 emakumeri elkartasuna adierazteko lau urtez luzatu zen kanpaina. “Itxialdiak egin genituen, Bizkaiko Foru Aldundian lehenbizi, eta polizia arrastaka atera eta komisaldegira eraman gintuen; gero, Bilboko udala hartu genuen eta ehunka emakumek bertan pasatu genuen gau osoa. Talde des-

berdinetan antolatu eta hainbat gairen inguruan hausnartu eta oso interesgarria eta arrakastatsua izan zen mobilizazioa. Lan asko egin zen eta borroka haren poderioz lortu zen emakume guzti haiek absolutu eta kartzelatik ateratzea, 1982. urtean”.

Hurrengo urtean, 1983an, Gobernu Sozialistak abortuaren bere lege proiektua onartu zuen eta, 1985ean, abortuaren zatikako despenalizazioa ekarri zuen araudi berria sartu zen indarrean. Hiru baldintzetan eta ezarritako epeetan eten zezakeen haurdunaldia emakumeak: haurdun zegoen emakumearen osasuna arriskuan zegoen kasuetan –honek ez zuen eperik–, bortxaketa kasuetan eta umekian malformazioak zeudenetan.

Iburguren gaineratu duenez, mugimendu feministak borrokan segi zuen abortatzeko eskubidearen alde, “beti pentsatu izan baitugu abortatzeko eskubideak, gure gorputzaren gainean erabakitze eskubideak, doakoa eta libre behar duela izan. Aldarrikapen horiei esker, 2010ean, PSOEek bultzatu zuen abortatzeko eskubidearen aitortzan eta

Mozioa

||| Abortatzeko eskubidea arautzeko PPren Gobernuak aurkeztutako lege proiektuaren aurrean, Azpeitiko Emakume Mahaiak aurkeztutako mozioa aho batez onartu du Azpeitiko Udalak, otsailko udalbatzarrean.

Mozio horretan, besteak beste, honakoa eskatzen zen: PPK aurkeztutako ‘Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako’ legearen aurreproiektua gaitzestea, “atzerakoia delako eta emakumeen eskubideak urratzen” dituelako. Era berean, Udalari eskatzen zitzaion “emakumeen autonomiarekiko eskubidea eta haurdunaldia-etetea emakumeen borondatea direla berrestea”, eta “abortuak osasun sistema publikoaren baitan egitearen aldeko hautua” egitea. Legearen kontra feministak egiten dituzten “ekimenak babestea” ere eskatu zaio Udalari.*

||| “Gure sexualitatearen, gorputzaren eta ugalketaren gaineko eskubidearen kontrola estatuak du”

LEIRE IBARGUREN

Bilgune Feministako kidea

sexu eta ugalketa-eskubideen espazioan zerbait irabazi zen eta 12. astera arte edozein emakumek zuen borondatez haurdunaldia eteteko eskubidea. Alabaina, PSOEK bultzatu zuen lege haren onartzearekin, murrizte bat ere eman zen: amaren osasuna arriskuan zegoen kasuak eperik ez izatetik 22. astera artekoa izatera pasatu zen”.

“Moral bikoitza”

Momentu honetan, abortuaren gainean PPK aurkeztutako lege proiektuak “esanahi simboliko asko ditu eta kontraesan bezalako diskurtsoa da, 1985eko legea baino atzerakoiagoa”, Odriozola eta Iburgurenentzat. Izan ere, lege berri honen arabera, egoera zehatz batzuetan baino ezin daiteke eten haurdunaldia: bortxaketa eta amaren osasuna arriskuan dagoen kasuetan, hain zuzen ere. Umeak malformazioen bat duen kasua ez du legeak jasotzen edo babesten.

Lege berriaren aurrean, “aterapauso handiak” salatu dituzte bi kideek. “Alde batetik, emakumeok gure gorputzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubiderik ez dugu. Gure gorputzaren, sexualitatearen eta ugalketaren gaineko eskubidearen kontrola estatuak du bere gain, horretarako dituen tresnen bidez. Bortxaketa kasuetan epaileak erabakiko luke; amaren osasuna arriskuan dagoenetan, berriz, medikuek. Eta horrek eragina du emakume guztiongan, ez bakarrik haurdunaldia eten nahi dutenengan. Izan ere, sistema patriarkalaren oinarri sendoenetakoa emakumea kontrolatzea da; oinarritzko egitura familia da eta, nolabait, abortatzeko eskubidea ukatuta emakumea umeak izatera behartzen dute, patriarkalari dagokion papera beste ezerean gainetik betez”.



1



2



3

1. Abortatzeko eskubidearen alde Loiolan egindako ekimena. 2. Manifestazio nazionala. 3. Anexon egindako pintada.

“Bizitzeko eskubidea aldarrikatzen dute etengabe, baina osasungintza publikoan emakumeei abortatzeko eskubidea ukatuta, klase sozial baxuko emakumeak bizitzak arriskuan jartzera behartzen dituzte, horiek abortatzeko klandestinitatera joko baitute”.

Bestalde, nahi gabeko haurdunaldiak eragozteko modu eraginkorra, emakume gazte zein helduei “hezuntza afektibo-sexuala eskaintzea” dela dio Iburgurenek. Alabaina, “egun ematen ari diren murrizketekin informazio guzti hori ukatzen ari dira eta, gainera, abortatzeko eskubidea ukatzen zaie”.

Horiez gain, malformazioak edo dibertsitate funtzionala duten fetuen kasuan ere “emakumeak abortatzeko eskubidea ukatzen zaiola eta, “egun egiten ari diren murrizketa guztiekin, justu, normatiboak ez diren gorputz horiek, dibertsitate funtzionala duten pertsona horiek bizitzeko eta bizi baldintza duina edukitzeko oztopo pila ari dira jartzen”.

Legearen bueltan “norbere gorputzaren gainean erabakitze eskubidearen erabateko ukazioa” dagoela salatu dute. “Etengabe, emakumearen gorputzaren gaineko erabakia hirugarren pertsonen esku dago, legeen edo estatuaren eskuetan. Hori da larriena”.

Odriozolak gaineratu duenez, “berriro ere emakumea erabaki bat hartzeko adina ez balu bezala geratzen da, ume bat izango baltz bezala. Eta emakumeen eskubide horiek estatuaren, epaileen eta medikuen gain geratzen dira. Hainbeste aldarrikatzen dute bizitza eta, gero, moral bikoitza dute. Egunerogunero, munduan goseak hiltzen dira umeak, gizonen eskuetan hiltzen dira emakumeak, eta horien bizitzak defendatzeko zer egiten du estatuak? Emakumeek, gizonak, gizarte osoak borroka egin behar du lege hau aurrera atera ez dadin”.

Gauzak horrela, martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Eguna antolatzeko, hilaren 14an Emakumeen Txokoa egingo den batzarrean (19:00) parte hartzea gonbidatu dituzte herritarrek.*

KIMU BATEKO EKOLOGIKOEN TXOKOA

HURBILDU ETA EZAGUTU !!

100% EKOLOGIKOEN TXOKOA 100% NATURALA

Kimu bat

“KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK”

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net

Aiertza Autoak

Auzolana otarrean

Egungo kontsumo ereduari aurre egin eta baserrien gainbeheraren aurrean alternatiba erreal izatea du helburu Uztaro kooperatibak 📝📷 Monika Juaristi

Ekologia, autogestioa, asanblearismoa eta zoriontasuna. Lau ardatz horiek ditu oinarri Uztaro kooperatibak. Egungo multinazionalen esku dagoen mundu mailako elikagai-merkatuak bultzatutako kontsumo eredu basatiaren aurrean alternatiba izateko nahiarekin jaio zen, eta euren asmoa eta helburua da herritarrei tokian tokikoa, garaia garaia, ekologikoa eta baldintza egokietan landutako kontsumitzeko aukera ematea, beti ere, lurra eta ingurunearekin errespetuz jokatzuz, eta baserriaren egonkortasuna lortuz. Guzti hori lortzeko, Beizamako Leunda-Berri eta Amenabar baserrien ondoko baratzeetan aritzen dira lanean kooperatibako bazkideak: Mari eta Esther Beobide ahizpak eta Eddy Carrasco azpeitiarrak, eta herrian bizi diren Edu eta Sergio Marin anaiak eta Jorge Ortega, besteak beste.

Bi lagunek ekindako proiektua hazi da pixkanaka, eta egun, berrogeitik gora bazkide dituzte, Gipuzkoako zazpi herritan banatuta: Azkoitian, Azpeitian, Getarian, Lasarten, Villabonan, Zarautzen eta Zestoan. Bazkide bakoitzak izena ematean 30 euroko matrikula ordaindu behar du eta, hilabetero, 70 euroko kuota. Indarrak batu eta hobeto antolatzeko, herrietako bazkideak taldeka batzen dira, hurrenkeraren arabera. Talde bat osatzen dute Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako bazkideek; beste bat, Zarauzkoek eta Getarikoek; eta hirugarren bat, Lasartekoek eta Villabonakoek.

Baratzeetan hiru pertsonaz osatutako lan taldea aritzen da eguneroko lanetan. Baserri-tarrak dira, eta baratzeak aurrera ateratzeko egin beharreko lanez eta produktuen asteroko banaketaz arduratzen dira, besteak beste. Astearen behin, gutxienez, bazkideen laguntza ere jasotzen dute: "Igandero herri talde bat joaten da esku bat botatzera. Izan ere, astelehenean banatzen ditugu otarrak, eta barazkien bilketa egin, produktuak kaxatan sartu eta otarrak prestatu behar izaten dira bezperan", azaldu du Esther Beobidek. Txandakatzeko joaten dira herri taldeak, eta baita herri talde bakoitzeko bazkideak ere. Beraz, bazkide bakoitzari urtean hiru edo lau igandetan

joatea egokitzen zaio. Horiez gain, beste lau deialdi inguru ere jasotzen dituzte lan jakin batzuk burutzeko: "Belar txarrak kendu behar direla, patata ateratzeko garaia dela... Hala-koetan auzolan deialdiak iristen zaizkigu", gaineratu du Ortega.

Otarreak, astelehenero

Bazkide bakoitzak astean-astean bildutako askotako produktuekin betetako otarre bat jasotzen du astelehenero. Lau heldu elikatzen adina produktu izaten dira otarre bakoitzean. "Zenbait kasutan bi familiek edo lagun talde batek otarre bat hartzen dute, gero euren artean banatzeko. 40 otarre inguru ba-



Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako herri taldeko kideak hilean behingo bileran, Azkoitiko Matadeixen.



Uztaroko bazkideak auzolanean Beizamako Amenabar baserriaren ondoko baratzean. ■■Uztaro kooperatiba

natzen ditugu, baina kontsumitzaileak bikoi-tza edo gehiago izango dira ziur asko”, azpimarratu du Sergio Marinek. Otarra bat gehiegi suertatuz, erdia eskuratzeko aukera ere eskaintzen dute –70 euroko kuotaren ordez, 35 euroko kuota ordaindu beharko da–.

Herri talde bakoitzak saskiak jasotzeko lokal bat du. Azkoitiko eta Azpeitiko uztarotarrak Azkoitiko Matadeixen jasotzen dituzte.

Erabateko autogestiora bidean

Uztaro kooperatibaren helburua erabateko autogestioa lortzea da: bitartekaririk gabe, diru-laguntzarik gabe eta dependentsiarik gabe. Eta urratsak ematen hasiak dira: lehen

esaterako, baratzeetan landatzeko landareen haziak kanpotik erosten zituzten. Orain, ordea, badute hazitegi txiki bat, eta osotasunean ez bada ere, euren haziak erabiltzen dituzte hainbat landare landatzeko. Negutegi batean ere ari dira lanean, klimak laguntzen ez duenean barazkiak hobeto mantendu daitezten: “Orain arte aire librean aritu izan gara beti. Orain, negutegia eraikitzen ere ari gara, eguraldia lagun ez denean ere produktuak ez daitezen galdu”, adierazi du Edu Marinek. Oraindik ez dago guztiz amaituta, eta horretan jarraitzen dute kooperatibako lagunek.

Inbertsio eta azpiegitura gehiago egiteko asmoa ere izan badute, baina zailtasunak

medio –ekonomikoak, batez ere–, prozesua “oso makala eta konplexua” dela nabarmendu dute. “Zailtasun asko daude. Inbertsioa eta lan handia eskatzen du erabat autonomo izateak. Horretan gabiltza eta bide honetatik jarraituko dugu lanean, baina poliki-poliki”, dio Carrascok. Hazkundera emateko eta ahalmen ekonomiko handiagoa eskuratzeko, ezinbesteko dute bazkide gehiago lortzea, eta horregatik, jendea animatu nahi dute kooperatiba ezagutzera eta bertan parte hartzera: “Animatu dadila jendea. Oso ondo pasatzen dugu, eta gainera, tokiko produktu osasuntsuak jasotzen ditugu. Proiektu polita da oso”, amaitu du esanaz Mari Beobidek.✳

Tindategia
Sagarna

Berezitasuna lehorreko garbiketan

Nordikoak, mantak, edredoiak eta gortinen garbiketa berezia

Ildefonso Gurrutxaga 3 **Tel.:943 026681**

Isurketarako kontrola handitu

Mutil eta gizon askok ez dute euren eiakulazioaren kontrol handirik, ezta beharrik ere. Maitale bikainak izan daitezke, baita bikote finak ere. Euren artea eta bikotekideekin izaten dituzten esperientziak oso atseginak, intentsoak eta irudimentsuak izan baitaitezke. Baina beste batzuen kasuan, isurketaren kontrol gutxi izateak asebetetasun eta segurtasun eza dakartzat.

Bikotekiderik ez duten mutil batzuk, jakinda euren eiakulazioa kontrolatzen ez dutela iaioitasuna bereganatu oraindik, beldur izan daitezke ligatzeko eta, beraz, zailtasunari aurre egiteko, harremanak ekiditen dituzte.

Bikotekidea duten beste batzuk, aldiz, euren burua hozten saiatzen dira, egoera kontrolatzen edo bikotekidearengan gehien gustatzen zaiena ekiditen, adibidez, aurrezurre begiratzea, bularrak ukitzea, musu sakonak ematea... Estrategia horiek guztiak ez dira benetan eraginkorrak eta zailtasuna areagotzen dute eta antsietatea biderkatzen.

Kitzikapena erregulatzeko gakoak

Ezinbestekoa da arrakasta gutxiko saiakerak alde batera utzi eta harremanak modu berri batera bizitzen hastea. Sarketa ez diren jokera erotikoetan trebetasuna garatzeak asko lagundu dezake. 'Klitoriaren-gidabaimena' ateratzea, ahoko sexuan trebatzea, norberari eta besteari bost zentzumenak intentsuki estimulatu ikastea, beldurra, konfiantza edota boterearen jokoetan trebatzea. Ohea ez da demostraziorako lekua, norbera izateko baizik, plazera sentituz eta partekatuz.

Horrez gain, eiakulazioaren kontrola handitzeko, 'atzera bueltarik ez duen ueña' identifikatzen ikasi beharko dugu. Orgasmoaren aurretik, une bat non jada ezinbestekoa da eiakulazioa eta une hori aurreikusten ikasi daiteke, edozein adinetan, praktikatu.

Bestetik, gorputzarekin zenbait mugimendu, postura edo jarrera eta flexio egiten ditugu oharkabean. Horiek ezagutzen baditugu,



||||||||| **nerea sancholli** |||

||| **Eiakulazioaren kontrola handitu nahi bada, 'atzera bueltarik ez duen ueña' identifikatzen ikasi behar da**

||| **Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:**
Sindikatu zaharra, 2. solairua
azpeitikoudala.com/sexu
688897920

kontrakoak egin ditzakegu eszitazioa apaltzeko eta, hala, une zehatz hori identifikatzeko baina, beti ere, giro erotikotik atera gabe:

- Kilikatzen begiak ixteko ohitura badugu, begiak ireki, edo justu alderantziz.

- Oinetako behatzak zabaltzen dizkigu eszitazioak? Orduan, biribildu. Belaunak luzatzen ditugu? Ba, tolestu. Buruz gora beroago? Ba, jarrai dezagun buruz behera.

- Uzurtu dezagun uzkia. Har ditzagun barrabilak eskuekin eta luzatu apur bat beharantz. Zakila lastantzeko aurrera eta atzerako mugimenduak erabiltzen ditugu? Probatu marrazki borobilak egiten airen, edo gora eta behera, edo alboka. Eskuin eskuarekin ukitzen dugu zakila? Zer gertatzen da ezkerrekin eginez gero? Jar dezagun gure mihia aho zapaiaren kontra. Etzanda aritzeko joera badugu, zer iruditzen zutik egitea? Eta eserita? Belauniko? Zakilaren mokoa edo punta eskuetako hatz lodien alde bigunarekin estutzea da; ez du minik egiten eta lagungarria izan ohi da. Esku bakarrarekin ere egin daiteke. Perineoa zanpatu behatz lodiaz. ✘





IRAURGI
ikastetxea



kristau eskola

ETORKIZUNERAKO ZUBIAK ERAIKITZEN



**Pertsona
autonomo, konprometitu
eta sortzaileak
hezten ditugu**




Zatoz
2013
gu ezagutzera!



Matrikulatzeko epea: otsailaren 3tik 14ra arte
Bilera informatiboa: urtarrilaren 31n, arratsaldeko 18:30ean
Ate irekiak: Otsailaren 4an, 15:30ean

Harzubia hiribidea, 7 **943 81 63 80**

Harrobiaren kantua

VII. Erniarraitz Sariketako finala otsailaren 14an jokatu da. Oholtzan zein sei bertsolari ariko diren, ordea, hilaren 7an jokatu den hirugarren kanporaketan erabakiko da, guztiz.  Ainitze Agirrezabala

Bi urtez behin jokatu den Erniarraitz sariketaren baitan, urtarrilaren 24an hasita hiru kanporaketa eta finala –hilaren 14an, Gaztetxean, 22:00etan– jokatu dira. Txapelketan, guztira, 18 bertsolari ari dira parte hartzen, eta horietatik hamar Erniarraitz Bertsozale Elkarteko kideak dira.

Lehenengo kanporaketa, joan den hilaren 24an jokatu zen Sanagustin kulturgunean, eta Antsoaingo Saioa Alkizak irabazi zuen. Bigarren kanporaketa, berriz, urtarrilaren 31n jokatu zen Errezilen, Borondegian. Orduko hartan, Amaia Iturriotz Zumarragarra gailendu zen. Beraz, Alkiza eta Iturriotz finalean izango dira.

Finalaren aurretik, baina, hirugarren kanporaketa jokatzeko dago. Otsailaren 7an, ostirala, Azkoitiko Kultur Etxean izango da

III DATUAK

III **Zer.** VII. Erniarraitz Sariketa finala.

III **Eguna.** Otsailak 14 (ostirala).

III **Ordua.** 22:00.

III **Tokia.** Gaztetxea.

III **Antolatzailea.** Erniarraitz Bertsozale Elkartea.

saioa, 22:00etan: Oier Etxeberria, Iñigo Ibañez, Aitor Salegi, Eneritz Arzallus, Nerea Ibarzabal eta Silvia Etxaniz ariko dira kantuan eta onenak finalerako pasea eskuratuko du.

Finalera, sei bertsolari

Gaztetxeko finalean, hiru kanporaketetako irabazleez gain, puntuazio handiena lortu duten hiru bertsolari ere izango dira.*

III VII. ERNIARRAITZ SARIKETA

18 bertsolari. Ari dira parte hartzen txapelketan, eta horietatik hamar Erniarraitz Bertsozale Elkarteko kideak dira.

6 bertsolari. Finalean, hiru kanporaketetako irabazleez gain, puntuazio handiena lortu duten hiru bertsolari ere izango dira.*



2012. urteko Erniarraitz Sariketako Odei Barroso txapeldunaren agurra. III Erniarraitz Bertsozale Elkartea

III BESTERIK

1 'Gure esku dago' hitzaldiak Hil honetan bi hitzaldi entzuteko parada izango da: 'Herria, Nazioa eta Estatu', Jokin Apalategi soziologoarekin eta 'Euskal Herriaren bideragarritasun ekonomikoa, estatu izan ala ez', Joseba Tobar ekonomialariarekin. III **Eguna.** Otsailak 12 eta 26, hurrenez hurren (asteazkena). III **Ordua.** 19:00. III **Tokia.** Sanagustin kulturgunea. III **Antolatzailea.** Gure esku dago taldea.

2 Musika banden trukea Nafarroako Garinoango Alai-Taldea Musika Bandak eta Azpeitiko Musika Bandak elkartrukea egingo dute eta emanaldia eskainiko dute. III **Eguna.** Otsailak 15 (zapatua). III **Ordua.** 19:00. III **Tokia.** Sanagustin kulturgunea. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Musika Banda.

3 Kaldereroen eguna Udal Musika Banda, Juan de Antxieta Musika Eskola, kalderero konpartsa eta azpeitiar kaldereroak Aranan bilduko dira. Matxotek gidatuta, kaldereroen konpartsa herriko kaleetan ibiliko da eta plazan emango diote bukaera kale jirari. III **Eguna.** Otsailak 22 (zapatua). III **Ordua.** 19:00. III **Tokia.** Arantatik irtenda, herriko kaleetan.*

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

Etengabeko berrikuntza, Ikastolan



Haurren garapena kontuan hartuta sortutako guneak

Haur Hezkuntzak garrantzi berezia dauka haurren garapenean. Bizitzako lehen urteetan aldaketa eta aurrerapen handiak egiten dituzte hurrek. Nortasunaren lehen ezauzgarriak finkatu eta adimen gaitasunak garatzen hasten dira. Hizkuntza eta gizarteratze aldetik ere aurrerapen handiak egiten dituzte adin honetan.

Ikastolan, haurri bere garapenean laguntzea dugu helburu, haur

bakoitzaren erritmoa errespetatuz eta bere interesetik abiatuz lan eginez. Haur bakoitzak bere garapen prozesu propioa du eta garapen afektiboak adin honetan duen garrantzia kontuan hartu nahi dugu.

Horregatik, espazioa ere hauren beharretara egokitu dugu, hauren garapena eta esplorazioa bultzatuz. Eta noski, autonomia eta erritmo propioa errespetatzen duen gunea osatuz.

► Nolako hezkuntza?

Euskara eta euskal kulturaren oinarritua
Eleanitza
Pedagogia aurreratua
Gurasoak parte hartuz

► Gure eskaintza

Haur Hezkuntzatik Batxilergora
Ordutegi zabala
Zaintza zerbitzua
Jangela
Garraio zerbitzua

Ikasturte honetatik aurrera eki proiektu berritzailea martxan DBHn

- **Euskal curriculuma**
- **Konpetentziak**
- **Integrazioaren pedagogia**

EKI proiektuak lau osagai kurrikular ditu: konpetentziak landuz ikasi eta irakasten da; euskal kultur ibilbidean eta curriculum ofizialetan oinarritzen da; ikas arlo guztietan prozedura sistematizatuak errazten dira, ikasten eta egiten jakiteko; eta euskara ardatz duen hizkuntzen planteamen du integratua egin da.

EKI material berriok Integrazioaren Pedagogia hautatu dute, irakasleek errazago irakasteko, ikasleek eraginkorrago ikasteko eta gurasoek prozesu horretan esku hartzeko. Egoerei irtenbideak aurkitzen ikasi behar du ikasleak, ikasitakoa egoera berrietan baliatzeko. Benetako egoera esanguratsuen aurrean jarrita, ikasleek egoera horietan behar dituzten baliabideak bilatzen eta erabiltzen ohitu behar dute; irtenbideak aurkitzen saiatu, bakarrik eta lan taldean moldatu, arazoaren soluzioa erdietsi eta egoera berrietan ikasi dutena baliatu.

European aitzindaria

Proiektu aitzindaria da European. Izan ere, beste lurraldeetan lehengo ikasmateriaiak egokitu egin dituzte konpetentzietan oinarritutako ereduera. **EKI** proiektua, berriz, zerotik (baina ez hutsetik) abiatuta egin da, ezaugarri dituen hiru oinarriak (euskal curriculuma, konpetentziak eta integrazioaren pedagogia) aurrera eramateko. Azken batean, XXI. mendeko hezkuntza berritzeko apustu euskalduna da **EKI**.

azpeitiko
ikastola
ikasberri koop.e.

0-3 urteko hauren gunea

- Garapen naturala behatuz
- Erritmo propioa errespetatuz
- Autonomia eta esplorazioa bultzatuz

Matrikulazio epea:


Otsailaren 3tik 14ra

Informa zaitez

943 15 12 46

www.azpeitikoikastola.net

HITZ GEZIDUNAK

	Beteak	▼	Palestinako hiria	▼	Pirinioetako gailurra	▼	Ingelesez, gaitzo	▼	Aho-legar
	Eskaintzan emanak		Usain txarra bota		Ipini, jarri		Xinaurriak		
	▶		▼		▼		▼		
	Deitura	▶							
	Izena	*							
Aldrebesa	▼	Irabazi	▶	▼				Oxigenoa	▶
Zealdoka		Elkartu						Saroiak	
▶		▼			Zeinek	▶		▼	Higuina
					Urrea				
Kezka	▶		Putre	▶	▼		Edari bizi	▶	▼
Tatuajea egin			Kontinente bat				Gai itsaskorra		
▶		▼				Jira	▶	▼	
						Garai, aldi			
Gartsu	▶				Oso-oso garbi	▶	▼		
Musika nota					Interjekzioa				
▶		Ezinaren erdian	▶		Pl. berdintasuna	▶	▼		
		Kontsonantea			Kontsonantea				
Metalen nahastura	▶	▼			▼			Errep., gorotza	▶



Egilea:
Luma

* Antzezleri azpeitiarra

SUDOKUA

2	9	7		8				
		6						4
5				3		8		
		3		7				5
		5		6		9		
6			9			4		
	5		3					1
3						6		
				5		8	9	3

ANTONIO RAFANIELLO
HORTZ KLINIKA

Titaniozko inplanteak: 295 €tik hasita



- Aseguruekin lan egiten dugu
- Ordainketarako erraztasunak
- Finantziazio pertsonalizatua

www.antoniorafaniello.com

Enparan kalea, 8-1. Azpeitia 943 816736

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	K	•	A	O	I	Z	A	E	A	L	A	•
K	A	K	E	R	O	•	I	Z	•	S	I	S
Z	T	A	R	A	•	S	U	T	S	U	S	•
A	R	I	B	•	U	A	T	U	A	T	A	T
N	R	O	•	A	I	S	A	R	H	A	R	•
•	K	R	O	•	A	K	A	B	Z	A	B	Z
O	•	U	A	I	T	A	R	A	G	•	N	•
I	D	N	E	M	Z	E	I	•				
K	A	I	N	I	A	K	E	S	K	A	I	N
•	B	•	A	•	G	•	A	•				

SUDOKUA

1	6	4	7	5	2	8	9	3				
3	2	9	4	1	8	6	5	7				
7	5	8	3	9	6	2	4	1				
6	1	2	9	3	5	4	7	8				
4	7	5	8	6	1	9	3	2				
9	8	3	2	4	7	1	6	5				
5	4	1	6	2	3	7	8	9				
8	3	6	1	7	9	5	2	4				
2	9	7	5	8	4	3	1	6				

ZEIN DA?/ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Otsailak 24 (astelehena) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZEIN DEN ADIERAZI.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN URTARRILEKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZEIN DA?



VALENTIN BENGOA JESUITA ETA SINDIKALISTA



IRABAZLEA



Irune Bildosola Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 157. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Irune Bildosola saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

Egin klik eta bisitatu gure denda birtuala

www.catandovino.com

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



ELKARRIZKETA DIGITALA alex berasategi (argazkilaria)

“Argazki gintza momentuz afizio bat da, aqian denborarekin ofizio bat”

III Kirolgi Fundazioaren XII. Kirol Argazkien Lehiaketan saria lortu du Alex Berasategi argazkilaria. **Argazkilaria, jaio ala hezi?** Biak. Txikitatik gustatu izan zait argazki mundua, baina duela gutxi arte ez dut ikutu ahal izan. Egia esan, pena da aurretik sartu ez izana mundu honetan; izan ere oso gustukoa dut eta gauza interesgarriak eta politak ikusi eta ikasi ahal izan ditut.

Teknologia berriak medio, argazki gintza asko erraztu dela iruditzen al zaizu?

Ezingo nuke esan erraztu egin denik, ez baitut aurreko argazki gintza ezagutu. Teknologia aldetik bai, noski, orain askoz ere aukera gehiago dago. Baina lehengo argazkilariek gehiago lantzen zuten argazkia. Orain egiten duzun ar-

gazkia momentuan ezabatu dezakezu eta beste nahibeste atera. Lehengo argazkilariek argazkia ondo pentsatu behar zuten eta errebelatu arte ez zuten ikusten euren lana. Argazkilaria zaharrendik asko ikasi dezakegu. Nik



pertsonalki asko ikasi dut Argazki elkartekoekin; beraiek teknologia berriekin nahi dute moldatu eta horretan laguntzeko prest gaude oraingo argazkilariak.

Bilboko suhiltzaileen egutegia bezalako bat egitea ez al duzue pentsatu sokamutirik, taldean argazkilaria edukita?

Momentuz ez, behintzat. Ni argazkiak ateratzeko prest nago. Photoshop-en ordu asko behar ko lirateke, baina zerbait egingo genuke.

Azken argazki bat ateratzeko aukera izango bazenu zeri, zeini aterako zenioke?

Azken argazkia nire etxekoei aterako nieke, beraiek lagundu didate mundu honetan hasi eta jarraitzen. Halako argazkirik ez dago!*

EFEMERIDEAK

1539

Eskutitza Erromatik. Idatzi zion Loiolako Inaziok Martin Garzia anaiari. Artean ez zekien aurreko urtean hil zela Martin.

1693

Udalbatzarra, bertan behera. Herritar gutxi agertu baitzen; berriro iluntzerako deitu zuten, 500 mairako isuna izendatuz joaten ez zenarentzat.

1869

Zezenkoak. Inauterietan jolasteko enparantza nagusian itxitura jartzea erabaki zuten.

✎ **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

III Egilea: Imanol Elias Odriozola.

III Argitaratzailea: Uztartaria Kultur

Koordinakundea.*

Orain zure mugikor, tablet eta kontsolak konpontzeko zerbitzu tekniko duzu.

Ez ezazu galdutzat eman, eska iezaguzu aurrekontua **konpromezurik gabe**

C/ José de Artetxe, 8 bj (Azpeitia)
Tel: 943 812 231
azpeitia@movilquick.net

42 denda
2001etik zerbitzu teknikoaren
bermea eskeintzen

movilquick
zura zerbitzu teknikoak

Airea osasunean

Inguruzten gaituen atmosfera da dugun airea. Giza soinak airetik oxigenoa hartzen du etengabe, eta orduro hartzen dugun 500 litro airetik 20 litro oxigeno kontsumitzen dugu. Inguruko hezetasunari dagokionez, faktore askoren menpe dago baina argi dago udan gehiago dagoela neguan baino eta egunaz handiagoa dela gauaz baino. Hala, egun motzak eta hotzak direnean, faringitis edo eztarriko narritadura gehiago izan ohi dute pertsonak.

Arnasten dugun aireaz edaten dugun uraz bezainbat kezkatu behar genuke. Hain da beharrezkoa bizitzeko, bost minutu baino gehiago ezin dugu iraun arnasa hartu gabe. Gizakiok zenbat eta gehiago pilatu, orduan eta gehiago kutsatzen dugu airea.

Haizeak ere balio handia du, mugitzen duen airea berritatzeko. Laino itxiko egunak okerragoak dira gure arnasketa-aparailuentzat.

Aireko ontasunak eta gaitzak gure arnasketa bidez bidaltzen ditugu kanpora, bronkioetako eta biriketako gure gaitzarekin aurrean duguna kutsatzeko arriskuarekin, baldin eta gu entzuten edo metro erdira badago. Egoera hori saihesteko hor daude moztarrok, baina tristea litzateke kalean horiek erabili beharra. Halere, horrelakoak ikusi ahal izan ditut kutsaduraz gaineztatutako hiriren batean.*

||||||| **Julian bereziartua** |||||



ANTONIO CARMONA ehorztetxeko arduraduna



1. Erraustu ala lur eman?

Erraustu. Garbiagoa eta merkeagoa da.

2. Hiltzea (ere) garesti...

Gastuen erdia eskelena da.

3. Zenbat hildako izatera heldu zarete hil batean? lazko urtarrilean, 35 zerbitzu.

4. Lanbidea oztupo izan ala da harremanetarako?

Txantxak egiten dizkirate, baina umorez hartzen dut.

5. Krisiaren kontra...

Kartoizko kutxak egiten hasi dira; bermerik ez dute, ordea.

6. Lehen hildako hurra...

15 urterekin hasi nintzen, aita hiltzean. Beldurra nuen.

7. Bitxikeriarik?

Baserritar batek deitu zidan

behia hil zela eta jasotzera joateko. Hil aurretik kaxa, beilatokiko gela eta eskela aukeratu izan du jendeak.

8. Nola aldatu ditu lanbaldintzak beilatokiak?

Orain, hildakoa prestatzeko baliabide guztiak eta hozkailua eskura ditugu.*

📍 **Ainitze Agirrezabala**

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Lamaldiak:
943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 + Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

lentzeria mertzeria

jose artetxe, 16

nabar

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44

Iuba
aholkularitza

Aholkularitza:
- fiskala
- laborala
- kontablea

Gestori lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inmobiliarioa

Tel. 943 157 929 Faxa: 943 157 973
Euzkara kalea, 43 - Iuba.ez@postelnet.net

KIRURI

JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 59 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta dizainu ikostegia

adi

- Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura 17:30/19:00
- Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

Zesta kenduta

Urte mordoa daramatza erremonteko lehen mailan. Badu, ordea, bestelako afiziorik, eta denerako hartzen du tarteak. 📝👉

Julene Frantzesena



Matxinbentako hai-zeak jota –gurasoak bertakoak ditu– edo anaia zaharra, Urko, pilotalekuan jokatzeko ikusita piztuko zitzaion erremonteko afizioa Ion Etxeberriari (Azpeitia, 1983). Metro kartratuko erremontista gehien dagoen tokian, Matxinbentan, hainbeste denbora pasatzeak ere izango zuen eragina, ziurrenik.

Kirola ofizio izatera iristen da zenbaitetan, baina, halabeharrez, kirola eta lana biak partekatzen ditu azpeitiarrak. Enpresagintza ikasketak Elgoibarren hasi eta Mondragon

Unibertsitateak Oñatin duen ETEO fakultatean bukatu zituen eta Samic enpresan egiten du lana egun, esportazioen sailean.

Pasa den abenduaren bukaeran, 43. Bina-kako Erremonte Txapelketa irabazi zuen bigarren, baina erremontea ez da futbola, eta lanerako eta gustuko gauzetarako, biatarako atera behar denbora. Entrenamenduak eta lana “ostegun eta zapatuetako partiden arabera” antolatzen ditu lonek, eta “lehen baino hobeto” moldatzen dela dio, “garai batean astean hirtan izaten genituelako parti-

dak”. Hori dela-eta, orain, laneko ordu gutxiago galtzen ditu. Dena den, izaten du denbora libre, eta badaki nola aprobetxatu.

Kalekumea ez

Gurasoak baserritarrak ditu lonek eta neskalagunaren gurasoak ere baserritarrak dira. Berak dioenez, horregatik du hain gustuko baserri mundua: “Baratzan lanean gustura jarduten dut libre nagoenean. Aitarekin joaten naiz. Aita jubilatuta dago eta baratzan pasatzen du egun osoa. Denetariko produktuak

ateratzen ditu eta bertan ardiak, txakurrak, oiloak, oilaskoak... ere baditu. Oporretan nagoenean eta denbora dudanean, laguntzera joaten naiz. Gustatu egiten zait. Duela bizpahiru aste atxurrean jardun nuen eta eskuetan babak ditut oraindik", dio barre artean.


Hala ere, bizitzeko kalea nahiago lonek: "Erosoago da. Baserria gustatzen zait, asko, baina denbora pasarako. Joan eta zerbait egiteko. Kalean egon baino nahiago dut mendian edo baserrian egon. Ni ez naiz kalekumea".

Matxinbentarekin lotura estua du lonek, eta umetan bertara joan-etorri ugari egindakoa da. Ez hain umetan ere bai, ordea: "Matxinbentarrak ditut gurasoak, eta umetan ostiraletik igandera han izaten ginen. Behin gidabaimena atera genuenean, ordea... Orain, gutxiago, baina joaten naiz. Asteburuetan batez ere, amamari eta izeba-osabei bisita egitera. Horren aitzakian bertan afindu, eta tripa onenaren pare bete ondoren, etxera".

Geldirik ere ez

Kirolzale amorratua da. Erremontea erdi ofizio eta afizio du, baina ez da egiten duen kirol bakarra. Pilotaz gain, gehien gustatzen zaion kirola mendiko bizikletan ibiltzea dela dio: "Duela lau edo bost urte probatu nuen, eta gustatu egin zitzaidan. Asko ibiltzen naiz orain, parranda gutxiago egiten dugu-eta. Ia igandero egiten dut bizikleta buelta lagunekin edo neska-lagunarekin. Jai goizean atera, bazkariaren pareko hamaiketako egin, eta eguerdian etxera". Hainbat txokotan ibiltzen dira bizikletan, baina "gustukoen" Izazpi, Pagoxeta eta Etumeta alde ditu.

Bizikletan ez bada, erremonteko entrenamendu eta partidak, eta "astegunetan tele-



1. Attolan neska-lagunarekin bizikleta buelta egin ostean. **2.** Picos de Eropan (Asturias), duela pare bat urte. **3.** Perdido mendiaren atzean elurtuta, joan den urtean.

bista ikusteko betarik ez" duela hartzen dio. Geldirik ezin egon, ordea, eta astean bi edo hiru entrenamendu egiteaz gain, egun batean edo bitan partidak izaten dituzte Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Eta, gainera, pare bat orduko mendi bueltak egitea "atsegin" duela esaten du, "bakarrik joan, eta deskonektatzeko".

"Etxean bezala inon ez" dio esaerak, eta halakorik pentsatu izan du noiz edo noiz lonek. "Txikitan-eta ez dugu ohiturarik izan kanpora joateko" eta horregatik, kostatzen zait ateratzea, agian. Behin ateraz gero oso ondo ibiltzen naiz, baina pereza ematen dit kanpora joateak. Berdin zait oporretara joan ordez hemen geratuta, bizikletan ibiltzeko edo mendira joateko aukera baldin badaukat".

Egun perfektua

Lonek azkar erantzuten du berarentzat nolako litzatekeen egun perfektua. "Goizean kirola egin –mendian edo bizikletan buelta–, nonbaiten bazkaldu eta iluntzean etxera. Horrelakoa litzateke nire egun perfektua. Parrandazalea izan naiz, baina orain gutxiago egiten dut, garai batean izan genuen boladarekin konparatuta. Beraz, egun perfektu horretan, onena, iluntzean etxera joatea. Gainera, asko gustatzen zait jatea, eta jatetxeren batera afaltzera joan zalea naiz. Toki desberdinak probatzea asko gustatzen zait". Hori guztiaz gain, eguna borobiltzeko, Bilboko Athletikaren partida ikusi eta lehoiek irabazten badute, hobe! Eta, nola ez, asteburuan berak jokaturako partida irabazita, ezin hobeto!

Amenabar
www.amenabardecoracion.com
amenabar@amenabardecoracion.com

Eliz-kale 32 Azpeitia
tel.: 943150697 / 685110703

"Il Partigiano" azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egindako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Telefonoa
943 08 09 13

ildefonso gurrutxaga, 12 behea

IL PARTIGIANO
Etxeko Pizak

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11

FARMAZIAK (OTSAILA)

EGUNEZ

1-2-7-13-19-25	3-8-9-14-17-20-26	4-10-15-16-21-27
Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).
943 815974	943 811274	943 080258

GAUEZ

1-2-13-25	10-15-16-27	11-28	12-24	14-26
Alberdi (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).
943 815974	943 080258	943 811350	943 811949	943 811274

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Urtarrilaren 29an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



TAPOIEN KANPAINA.

Minusbaliotasuna edo gaixotasun arraroa duten seme-alaben tratamenduei aurre egiteko jarri dira plastikozko tapoi solidarioak biltzeko ontziak. Udaletxeko sarreran tapoiak jasotzeko ontzi bat dago.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

1-2-13-25	10-15-16-27	11-28	12-24	14-26	3-8-9-21	4-5-17-22-23	6-18-19	7-20
Alberdi (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 815974	943 080258	943 811350	943 811949	943 811274	943 852989	943 851235	943 851966	943 850660

AINARA EPELDE

Boone, North Carolina

“Ekintza aukera zabalago; gainera, doan”

Appalachian mendikateen erdian dagoen herri txiki batera joana da, karrerako azken urtea egitera. 📌 **Ainitze Agirrezabala**

Nolatan bizi haiz Boonen?

lazko abuztuan esan nionan agur Euskal Herriari. Kirolen zientzia eta fisioterapiako bosgarren eta azken urtean zagon eta hasi nindunanetik ninan burua denboraldi baterako kanpora joatea. Ingelesa ikasi eta kultura berri batean murgiltzea hitunan nire helburu printzipalak eta hemen nago, ozeanoaren bestaldean nire ametsa bizitzen.

Nolakoa dun horko jendea?

Oso pertsona onak ditun. Beti laguntzeko prest, oso irekiak eta alaiak ditun, bereziki kanpotarrekin. Boonek 17.000 bizanle ditu eta ez dun gurasorik, umerik eta aitona-amonarik bizi. Ikasleak bakarrik bizi gaitun, beraz, oso populazio aktiboa osatzen dinagu. Orokorrean kirolzaleak eta mendizaleak ditun eta aktibitate mordoa antolatzen ditun egunero.

Azpeitiak ez duen zer din horrek?

Paisaia eta aktibitate aukera. Paisaia ikaragarrikoa dun, mendia besterik ez dun ikusten eta urtaroak oso nabarmenak ditun, polita benetan. Orain elur denboraldia hasi dun eta martxora arte ez dinagu atsedenik izango, elurra egunero. Ekintza aukerari dagokio-

nez ez zagon aspertzeko astirik, era guztieta-ko klubak eta klaseak zauden denbora libreaz gozatzeko; ikasleentzat guztia doan.

Zer gustatu zain gehiena? Gutxiena?

Gehiena, batez ere, lekua bera. Gutxiena, berriz, janaria. Orokorrean, oso gaizki jaten ditun. Gehiengo ez dun osasuntsua.

Azpeititik zer botatzen dun faltan?

Familia eta lagunak, noski. Badun faltan botako dudan beste zerbait, sokamuturra. Aurtun ere san sebastianak eta karnabalak galduko ditinat.

Euskal Herriaz ba al zekin ezer horko jendeak?

Gehiengoak ez. Batzuei San Sebastian esan eta ezaguna egiten zaie, baina arrakasta San Fermin hitzak din. Denek ditun horren berri.

Euskaldunik ba al zagon hor?

Ehun internazional inguru juntatu garen arren ez zagon euskaldunik, bakarra naun. Egin ditinaten bidaietan ere ez dinat euskaldunik ezagutu. Gehien gerturatu dena nire gelako mutil baten abizena izan dun, Lezama. Horrek balio al din?*



1

1. Kaimanarekin, Miamiara egindako bidaiaren batean. 2. Unibertsitateko estadioan, futbol amerikar jantziarekin. 3. New York atzean duela.



2



3

Ez itxi

Ez dira izango hiru aste ere. Ikastolara gindoazen gu, alaba eta biok, bizikletan, goizean goizago. Eta Eusko Jaurlaritzaren paretik igarotzean, andre eta gizon koadrila pasatu zen gure ondoan, denok espaloian, bai haiek, bai gu. Gasteizen ez dago espaloia bezalakorik bizikletan ibiltzeko. Hantxe egiten dugu borroka oinezkoek eta bizikletak. "Maria –esan nion gure maitagarriari–, horiek denak manifestazioan etorri dira". Itxura horixe zuten. Ez zen asko pentsatu beharrik ere. Aspaldi, hainbat kontzentrazio eta bilkura egin ohi dira Jaurlaritza atarian. Eta guk handik pasatu behar egunero! Han izaten dira sindikatuak eta ikurrinak, mikrofono eta kamerak, langileak protestan eta ertzainak... Ertzainak, ezertan ez, behin eta berri eta askotan bezala. Inoiz, haiei begiratu eta entzun behar izan dut: "¡Que te vas a caer!". Jakina, bada, euskaldun peto-petoak dira ertzain hauek.

Ez dira izango hiru aste ere. Ikastolatik gu, alaba eta biok, bizikletan, eguerdian orduan. Eta Eusko Jaurlaritzaren paretik pasatzean, hura paper zaparrada berrehun metro luzeko kalean! Inoiz ez bezala saiatu zen goizeko andre eta gizon koadrila hura. Inoiz ez bezalako amorrazioa barruan. Eguerdian, ezker-eskuineko espaloia eta erreiak panfletoz zuri estalita ikusi genituen. Espektakulua. Eta hotza bazen ere, eta euri txikia egin bazuen ere, ez zen elurra. Pegatina mordoa zen han, denak berde bizi, eta laranja bizi. Eta Jaurlaritza aurreko paretan, izen bat: ANTALIS. EZ ITXI. "Horra, Maria –esan nion gure maitagarriari–, goizean ikusi dugun andre eta gizon koadrila. Fabrika dute Antalis". Izan zitekeen Corrugados. Izan zitekeen Grumal. Izan zitekeen Azpeitiko fabrika tailer edo bestelako batetik etorritako andre eta gizon koadrila.

Zenbaki huts, ez

Ez dira izango hiru egun ere. Ikastolatik ni, alaba ikastolako kartzelan utzia, goizean




■■■■■■■■■■miel a. elustondo■■■■■■■■■■

Desenpleguaren datuak arrosarioan entzuten ditugu. Horretara ohitu gaituzte

goizago. Egunkaria hartu nuen pasadizoan. Etxera heldu, papera zabaldu, eta hantxe, Lurdes, bata, Axun, bestea. Azpeititik bestaldeko bailarakoak omen ziren. Tolosarrak. Langabezian utzi zituzten egun batetik bestera. Itxi zuten delako Antalis. Itxi zuten Corrugados. Itxi Grumal. Itxi hau hori eta hura. Desenpleguaren datuak arrosarioan aditzen ditugu. Horretara ohitu gaituzte. Erdirik entenditzen ez dugula, gure lagun eta ezagunen izenik tartean ez baldin bada, behintzat. Egun hartan, egunkarian, desenpleguaren begi biziak ikusi genituen etxean. "Maria –esan nion gure maitagarriari–, akordatzan Jaurlaritzako pegatina koloretakoak? Hauek dira haiek. Lurdes, Iñaki, Axun, Jexux, Anjel, Oihane, Mikel, Aitor... Ez dira zenbaki huts, hezur-haragizko lagunak. Gure lagunak. Badugu nondik hasi laguntzen, burua nekatzan, bide berriak bilatzen. Besterik egiten ez dakigu.

Jaurlaritza atarian, han, oraindik: EZ ITXI.✳





AZPEITIKO IKASTOLA - KARMELO ETXEGARAI

Euskal Herria, 50 · Tfnoa.: 943 81 26 97 · www.azpeitikoikastola.hezkuntza.net

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza



ZAINZA ZERBITZUA

BI JANGELA

- Lehen Hezkuntzakoentzat
- Haur Hezkuntzakoentzat (logela eta guzti)

GARRAIOA

- Autobus bakoitza bere zaintzailearekin



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

UROLA IKASTOLA

Perdillegi, 3 · Tfnoa.: 943 15 02 28 · www.urola.org

DBH, Batxilergoak eta Heziketa Zikloak



DBH

BATXILERGOAK

- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Arotzeria eta altzarigintza
- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazioa eta finantzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa



Softekin

INFORMATIKA

ORDENAGAILUEN SALMENTA
MOTA GUZTIETAKO ORDENAGAILUEN KONPONKETAK



GEURE HIZKUNTZAN LAN EGITEKO,
NEURRIRA EGINDAKO
EUSKARAZKO PROGRAMAK DITUGU
(Autonomo, enpresa txiki, denda,
taberna, jatetxe, akademientzat...)

Iberotarren plaza 8, behea 20730 Azpeitia Tel.943 81 51 51

www.softekin.com

Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT
20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



Createch Medical-en

etorkizuna gerturaten dizugu,
implanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 Eibar

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 Azpeitia

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com